



JIMENO JURÍO, José María

Navarra, Gipuzkoa y el Euskera. Siglo XVIII

Pamplona : Pamiela, 1999. – 253 p. ; 21,5 cm. – (Ensayo y Testimonio ; 35). – ISBN: 84-7681-298-1

Pamiela-k argitarara duen liburu hau laburbiltzerik ez dago. Beste askotan bezala Jimeno Jurio ikertzaile nekagaitzak han edo hemen ustekabeen aurkitutako dokumentu bitxi eta argitsuek ez baitute laburtzerik. Beren horretan eta osoan baitira argi emale. Interesa duen euskaltzaleak, beraz, liburu bera irakurtzea dauka. Bidetxigorrik ez dago.

Errepikapenaren poderioz azkeneko urte hauetan geure kaleetan barrena maiz entzun izan dugu oihu bazuk (*Nafarroa Euskadi da hura*, adibidez) lelo politiko huts bihurtu dira azkenean. Itzuri egin zaie mamia.

Baina Nafarroa Euskal Herriaren atala izan da, bai. Gure bizkar hezurra ere bai. Jakin badakigu. Askotan entzun eta esan dugu. Baina ez bide dugu osotara sinesten. Nafarroa enborretik at ikusi nahi dutenen lan aspergaitzaren ondorioz, nafartar asko eta askoren erdal-tzaletasun faktikoak nekaturik, eta media antieuskaldunen ereintzaren ondoren, geronek ere zalantzan jartzen dugu esaten duguna. Edo, gehienez, Nafarroaren euskalduntasuna gertakari *arkaikotzat* hartzen dugu.

Jimeno Jurioren obra eskergak, Toponimian eta Hizkuntzaren Historian bereziki, aldatu egin du Nafarroa euskaldunaren kondaira, are hautematea bere ere. Jimeno Jurioren ondoren, oinarririk batere gabe gelditu dira “navarrista” amorratuen mezuak. Eta denbora joan ahala, nafartar belaunaldi berriak, beste giro batean garatuko dira. Zalantzarik ez dut egiten.

Navarra, Gipuzkoa y el Euskera liburu hau, giro-aldaketa horren adierazle eta aitzindari izan daiteke batera. Funtsezko ideia bat azpimarratzen du Jimeno Juriok, hasteko. Euskarak Nafarroan XIX. mendean barrena pairatu zuen kolapsoa, XVIII. mendean hozitu zela. Gertakariaren giltzarria, hitz batez, atzerago behar dela bilatu, Joseba Intxausti historialariak bere hitzaurrea azpimarratu duenez:

Francia, España y Portugal, con sus respectivos mundos coloniales, conocieron en el siglo XVIII proyectos de actuación político-lingüística de una firmeza y rotundidad que dejaron pequeños a los Austrias de los siglos XVI y XVII, e incluso a Francisco I, el firmante de las Ordenanzas de Villers-Cotterêts (1539).

Urteetan zehar kondatu zaigunez (eta oraindik ere batzuek diotenez) Madrilek (eta Parisek) euskararen kontrako politika anti-euskalduna *Franco*-k hasi zuen 1936an, edo *fazismoak*. Edo-ta, gehien-gehienik, *espiniar eskuin atzerakoiak*. Espainiar ezker politiko-intelektuala, garbi omen, orbainik gabe bailegoan. Nagusi egon den joera horrek (Madrilen ezker agintean egonez gero arazorik ez genukeela hizkuntzaren alorrean), sustrai sakonak bota ditu gure politikagintzan.

Baina euskararen kontrako jazarpena ez zuen XIX. mendean gure industri-burgesiak asmatu eta bideratu; aurreko XVIII. mendean espainiar “Despotismo Ilustrado” aurrerakoiak baizik. Euskararen kontrako gurutzada 1789 baino lehenago prestatu zen.

Hots, oinarritik beretik astintzen du Jimeno Juriok obra honetan. Espainiar eta frantses “progreak” (edo “ezkertiarak”, nahiago bada: izendapen hori berdin zait une honetan) ez dira inondik inora eskuindarrak baino goxoagoak izan gure hizkuntzaren kontrako borrokan. Zabalatasunaren koroa jarrita daukan Carlos III erregeak, txapeldun agertzen zaigu jazarpenaren puntu honetan.

Beste ohar garrantzitsu bat: espainiar Estatu-aparatu politiko-administratibo arrotza (eta eklesiastikoa ere bai, eskuz esku!) izan zela okerrena. Ez bertako aiton-semeen multzoa bera. Nahiz, zalantzarik ez, gure klase nagusiaren traizioa, oro har, izkututzerik ez egon. Ezin adierazgarriagoa da, honi buruz, Elio-tarren leinuaren kasoa (Bigarren Karlistadakoa ere funtsezko familia gailen). Jimeno Juriok frogatzen digunez (89. orr.), Iruñean jaiotako Francisco Elio eta Robles Besolla-ko Markesak (Aiantz-ko oiartzuar Kondesarekin ezkondua), *aunque entiendo y abla el idioma castellano, por maior satisfacción llamó al que depone, y se confesó en el vascongado, y recibió el Santo Biático, haciéndole en el mismo las demás prebenciones concernientes a ese sacramento*. Elebiduna zen iruindar Markesa, hitz batez; baina euskaraz hobeki moldatzen zen erdaraz baino. Eta, beraz, Jimeno Jurioren hitzez esateko, *la identificación de la lengua vasca con sociedad rural es en Navarra un tópico a revisar*.

Nafartarrak, uste baino gehiago, euskaldunak ziren hizkuntzaz XVIII. mendean. Pittin bat Kataluñan gertatu denaren ildotik. Elizaren eta Estatuaren aparatoak, aldiz, ez.

Nor zen erdalduna, beraz, Nafarroa zaharrean? Hona zerrenda: *[los] sacerdotes, escribanos reales, médicos, boticario, cirujanos, estudiantes, ministros de la Renta Real del Tabaco, maestros de primeras letras, y algún forastero* (ikus 81. orr.). Eta euskalduna, nor? Agintetik at zegoen herri-multzoa.

Diglosiaren argazki zehatzagorik aurki ote daiteke? Baina (hau ere kontutan hartu behar da) elebitasuna, are *euskal elebakartasuna bera ere*, oso Hegoalderaino iristen ziren: *En Artazu nadie, ni siquiera regidor, sabía castellano, si no es el cura* (ikus 90. orr.). Artazu, ordea (begira dezagun mapa), edo Muzki, edo Erretzu, Etxauri, Jaitz (Salinas de Oro erdaraz), edo Mañeru, Garinoain, Mendibil; edo Artaxoa bera, Jimenoren beraren jaioterria, ez daude Gipuzkoako mugan. *La Tierra Bascongada –irakur dezakegu– ocupa de tres partes del Obispado, las dos o más* (1765, 36. orr.). Euskara “nafartarren hizkuntza” delakoa, ez zen orduan lelo huts eta hutsala.

36ko gerra aurrean (askotan gogorazi izan denez) posible zen oraindik Gares inguruan (Utergan adibidez) bertako euskaraz mintzo ziren nafartar zaharrak aurkitzea. Aisago, beraz, XVIII. mendean. Eta hauxe da Jimeno Juriok maisuki dokumentatu duena.

Beste puntu garrantzitsu bat: Unamunoren iritzien kontra, euskara Nafarroan ez zela “berez” suntsitu. Bertakoen askoren axolakabekeria (are “auto-odi” eta “self-hatred” nabarmenak) agirian eta disimulatu ezinak izan arren, zapalketa egon zela Nafarroan, berariazko bazterketa eta linguizidioa. Torrealdei-ren ikerlana ezagutuz gero, nekez jar daiteke zalantzan. Baina Jimeno Juriok mugari berriak eskaintzen dizkigu. Aita Kardaberaz jesuitari berrari, San Ignazio-ren biografia bat euskaraz argitaratzea debekatu zioten espainiar agintariak (Ordenaren kasaketa 1767an eman baino lehentxeago). Antzeko politika jarraitu zuen Madrileko gobernuak leku guztietan (Euskal Herria, Kataluña, eta Ameriketako koloniak barne). Bertako hizkuntzak oro desagerreraztean zen helburua: euskara, katalana, ketxua, guarania, etab. Eta Inperio osoan gaztelania *hizkuntza bakar* euzka. Horri guztiari, jakina, “modernizazioa” deitzen zioten; *excluyendo todo dialecto provincial*.

La Real Cédula de 1768 –dio Intxaustik– es la primera norma positiva que prohíbe sin ambages la enseñanza del catalán en las escuelas primarias de todas las tierras de lengua catalana (21. orr.).

Nafarroan gauza bera gertatzen zen. Baina batzutan Espainiak ezer zakarki debekatu beharrik ez zuen. Aski zuen hizkuntzari *gizarte-funtzioak* kentzea (“hacer que no sirva para nada” esan nahi du oso argiro herri xeheak). Administrazioetik eta irakaskuntzatik at jartzea, eta “berez” hiltzen uztea.

Maltzurki jokatzeari aski: *[El Corregidor] pondrá el mayor cuidado en introducir la lengua castellana, a cuyo fin dará las providencias más templadas y disimuladas, para que se consiga el efecto sin que se note el cuidado*” (1717, Kataluñan, ikus 18. orr.). Horretarako, eta Estatuak eskuak libre izan ditzan, *okupazio militarra* da lehenengo urratsa (12, Intxausti-ren atalena). Herria erabat menderatzea aurrenik.

Hitz batez: euskaltzale guztiek xeheki eta arreta osoaz irakurri eta ikasi behar lukeen liburu mamitsu bat. Agian bai!

“Txillardegí”



LACASTA-ZABALZA, José Ignacio
España uniforme

Pamplona : Pamiela, 1998. – 365 p. : il. ; 21,5 cm. –
(Ensayo y testimonio ; 32). – ISBN: 84-7681-296-5

La sustancia de este libro es la indignación intelectual y moral de su autor ante el pensamiento español políticamente correcto predominante en este tiempo finisecular, un pensamiento tan débil de fundamentos como desmemoriado según José Ignacio Lacasta Zabalza. Por decirlo pronto y bien, es un libro hecho con tanta pasión como razón. Esto último, las razones, las pone, por oficio, el catedrático que piensa más y mejor cuanto más se sitúa en la heterodoxia, a contracorriente de esa *España uniforme* que aquí se critica oportunamente. Mientras que lo primero, la pasión, le viene *dada* por su genética navarra, pido excusas públicas por esta concesión al estereotipo, y sobre todo por el imperativo íntimo de su propia biografía. Tal vez por ello mismo, se trata de un libro reconfortante para tantas y tantos lectores que se sienten ofendidos un día sí y otro también por los juicios y comentarios de prepotentes columnistas, tertulianos y presuntos intelectuales de la vida social española. La severa crítica que se les asesta en este libro es como un bálsamo impagable del cabreo realmente existente en esa parte de la ciudadanía, lo he constatado personalmente entre mis amistades, aunque para mi gusto prefiero la metáfora del cazador, Lacasta, que sale de caza a cobrarse sus piezas preferidas, empujado por sus propias querencias.